

Donostia, 2016ko martxoaren 17a

IDAZKARI NAGUSIARI:

KONTROL MOZIOA, MONPASEKO PASABIDEA DELA ETA

Loïc Alejandro Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozio hau Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) otsailaren 14an izandako bileran Monpaseko pasabidearen inguruan egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 14ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), interpelazio bat egin genion alkateari, Monpaseko pasabidearen gainean azalpenak eman zitzaizkion, gobernu programan jasota dagoela eta.

Hain zuzen, programako *Hirigintza Jasangarria eta Hiriko Proiektuak* atalean dago sartuta Monpasen pasabide bat egiteko Odon Elorzaren proiektu zaharra. Otsailaren 17an, alkateak jakinarazi zuen gelditu egin zutela joan den legealdian Sagues alderako egin zuten berrurbanizazio proiektua, EAJ-PSE koalizio gobernu berria beste bat aztertzen ari dela eta, aipaturiko pasabidea eta beste hotel bat egiteko.

Alkateak batzordean adierazi zuen estatuan izango den Gobernuarekin hitz egin nahi duela Udal Gobernuak, Monpaseko pasabidearen proiektuari berriz ere heltzeko prest ote dagoen jakiteko. Beraz, badirudi, baietz erantzuten badu, Udal Gobernuak aurrera egingo duela harekin.

Euskal Geografia Elkargoak hainbat arazo azpimarratu ditu:

- “**Itsaslabar bizi** baten gainean proiektatu da, eta, nahiz eta bidea hegaletik urrun egon, luizi eta irrifatze handi samarrak izan litezke hor, bidean edota ainguratze sisteman ere **eragin** lezaketenak.
- “Teorian, olatuak ez dira haraino iritsiko, baina batzuetan abiadura handiko haize ufadak izaten dira alde horretan eta horrek **eragin negatiboa** izan lezake bidean”.
- “Nahiz eta eraikuntza proiektuan zoru naturalari albait gutxien eraginez jardutea aurreikusten den, ainguratze sistemak jarri beharra dago, eta horrek **luiziak** eragin ditzake”.
- “Segur aski, pasabidea mantentzea **garesti** aterako da, batez ere zurezko zatiak”.
- “Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak **ez zuen egokitzat** jo pasabidea egitea. (2008).” (Udaleko Ingurumen Atala ere horren kontra dago).
- “**Ez dakar nahitaezko zerbitzurik** gizartearentzat”.

Gogorarazi nahi dugu joan den otsailean Donostiak, berriz ere, itsas denborale bati egin behar izan ziola aurre eta hark eragindako kalteak 5 milioi euro baino gehiagokoak izan direla, hala ondasun publikoetan

nola pribatuetan. Duela 2 urte izandako ekaitzak, bide publikoa konpontzen bakarrik, 8 milioi euroren kostua ekarri zuen. Klima aldaketa errealitate eztabaidaezina da, eta, txosten zientifikoaren arabera, halako ekaitzak gero eta ohikoagoak izango dira.

Oso inbertsio handia da hori (14 milioi euro) eta diru publikoa da. Espainiako Estatuak ordaintzeak ez du esan nahi diru publikoaren erabilera onaz arduratu behar ez dugunik. Elkartasuna oinarri, zorrotz zaindu behar dugu diru publikoa zertan erabiltzen dugun, diru hori datorren tokitik datorrela ere, batez ere krisi garaietan.

Bukatzeko, adierazi behar dugu, Estatuak finantzatuta ere, mantentze kostuak tokikoak direla. Gastu gehiago, gizartearentzat ezinbesteko zerbitzurik ez dakarren azpiegitura batengatik.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez dezala gestiorik egin Estatuako Gobernuarekin Monpaseko pasabidearen proiektua berreskuratzeko eta behin betiko ezetsi dezala.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia